

**ERABAKIA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko lan-eskaintza publikoei dagozkien ohiko prozesuaren bidez eta sarbide mota orokorra, funtzionario gisa sartzeko onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzeko dena.**

Errektorearen 2022ko urriaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionario eta lan kontratuko langileentzako 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien oinarri orokorrak bai eta funtzionarioen barne-sustapenekoak ere argitaratzea agindu zen.

2022ko azaroaren 30ean, argitaratu ziren UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileak A, B, C, D eta E taldeetan karrerako funtzionario gisa sartzeko ohiko prozesua arautzeko oinarri espezifikoak.

2023ko martxoaren 30ean, gerentearen ebazpena argitaratu zen. Horren bidez, eskabidean alegatutako baina ezin izan diren egiaztatu betekizunak zuzentzeko epe bat ireki zen. Epe hori 2023ko apirilaren 24an amaitu zen.

Seigarren oinarri orokorreko lehenengo paragrafoan zehaztutakoari jarraituz, UPV/EHU gerenteak eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzeko erabakia emango du, baztertutakoen kasuan, kanpoan uzteko arrazoiak adierazita.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

#### **ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-**UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen A, B, C, D eta E taldeetan ohiko prozesuaren bidez eta sarbide mota orokorra, funtzionario gisa sartzeko deialdi espezifikoetan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea, dagozkien eranskinetan, eta, hala badagokio, baztertutako arrazoiak adieraztea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau deialdi espezifiko bakoitzaren webgunean argitaratzea, horretarako gaitutako UPV/EHUren web-orritik sar daiteke orri horretara (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/ohioko-prozesua-funtzionarioak>), deialdi espezifiko bakoitzaren web-orrian, baita UPV/EHUko iragarki-oholetan ere.

**Hirugarrena.-** 6.2. oinarri orokorrean adierazitakoaren arabera hamar egun baliodunen barne, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendaren aurkako erreklamazioak egiteko, edo, hala badagokio, akatsak zuzentzeko.

Errektoreak 2021eko urtarrilaren 28ko erabaki bidez eskuordetutako eskumenak erabiliz (2021eko otsailaren 12ko EHAA)